

An abstract line drawing of two hands, one above the other, rendered in dark brown and black lines on a textured, light beige background. The hands are positioned as if holding or supporting each other. A white rectangular box is overlaid on the center of the image, containing text.

MUGEN MUGETATIK **#IKUSGAITEZEN**  
GAZTE MIGRATZAILEEKIN ETORKIZUNERA BEGIRA

DESDE LAS FRONTERAS **#IKUSGAITEZEN**  
MIRANDO AL FUTURO CON JÓVENES MIGRANTES

**Idazketa eta edizioa:**

**Diseinua eta maketazioa:**

Unai Martin

**Itzulpena:**

ARTEZ Euskara zerbitzua Koop. E

**Laguntzaileak:**



2020ko abendua

# AURKIBIDEA

1. Sarrera .....	4
1.1 Elkar ikusten hasten .....	5
2. Diskriminazioei gazte begirada .....	6
2.1 Aukeren berdintasun eza .....	9
3. Non ikusten gara? Non aurkitu gaitzke? Espazio desberdinetako oztopoak .....	11
4. Bizikidetzarako zenbait gako .....	17
4.1 Harremanak eta testuinguruak erraztu edo zaildu ditzaketan faktoreak .....	18
5. Erronkak eta ondorioak .....	19
6. Itxiera .....	20
Bibliografia .....	21



# 1. Sarrera

Askotarikoa da gaur egun gazte bakoitzak duen errealitatea eta egoera. Zentzu honetan, bizipen eta testuinguru pertsonal zein errealek berebiziko garrantzia hartzen dute sarritan. Ideia honetatik abiatuz, EAEn bizi diren gazte migratzaileek duten egoera eta testuinguruaz hausnartu nahi izan da Euskadiko Gazteriaren Kontseilutik (EGK).

Gero eta espazio gehiagotan topo egiteko aukera dagoen arren gazteak ez gaude batera, ez dugu denbora partekatzen. Ondorioz, ez dugu elkar ikusten eta are gutxiago elkar ezagutzen.

Proiektuarekin, lehendabizi gazte migratzaileek ahots propioz eta lehen pertsonan bizi duten errealitatearen argazki orokor bat egin nahi izan du EGK-k. Hori aztertu ostean, gizarteratze prozesuetan eta parte hartze sozialean orokorrean pertsona gazteen paper eta eginkizunean sakondu da, berau aztertuz eta ikustera emanez.

Migrazio prozesua bizi izan duten eta gaur egun euskal gizartea osatzen duten pertsonen, zehazki gazteen, testigantzak jaso ditugu proiektu honetan. Zentzu horretan gazteei protagonismoa ematea beharrezkoa da, besteak beste migratzaile asko gazteak direlako gaur gaurkoz EAEn ere. Gazteak

espazio desberdinetan egoten dira, kasu batzuetan espazioak partekatuz baina askotan ez dutelarik elkar ikusten. EAeko aniztasuna erreala dela ikusita, gazte migratzaileekin batera etorkizunera begiratu nahi izan du EGK proiektu honekin, gazteak elkartzen diren (eta elkartzen ez diren) espazioak identifikatu eta bertako parte-hartzea nolakoa den aztertzeko.

Gazte migratzaileekin etorkizunera begira hitz egiten jartzeko topaketa hau, 2020ko irailaren 26an, larunbata, ospatu zen Bilboko Hika A-teneo espazioan. Honako txostenean, bertan ateratako ondorioak ageri dira laburbilduta. Eguneko egitaraua prestatzeko aurreko hilabeteetan zehar eragile desberdinekin harremanetan jarri da EGK, bai hezkuntza lan-arlotik eta baita bakea eta bizikidetzako lan-arlotik ere. Honen helburua topaketa ahalik eta a-nitzena zein adierazgarriena planteatzea izan da, bi arloetako ikuspuntu desberdinak kontuan hartuz.

Hala, eta jakinda testigantzen garrantzia eta inpaktua azpimarragarriak izan ohi direla orokorrean, topaketa bi ataletan banatzea erabaki zen. Lehen atal batean 4 pertsonen testigantza ezagutarazteko aukera eman zen: Fatimetu Zenan, Ayoub Zouairi, Bachari Labeidenak eta Amaia Iguaran. Jatorri eta bizitza desberdinak izan dituzten 4 pertsonen

testigantzak entzuteak, pertsona gazteen artean dauden gazte migratzaile eta ez migratzaileen arteko erlazioaren ikuspuntu desberdinak mahaigaineratzeko aukera eman du. Hizlariak elkarrekin desberdinetatik gonbidatzeak testigantza eta iritzi anitzagoak izatea ahalbidetu du halaber, eta baita gazte migratzaileen egoera eta partaidetza zein eta nolakoa den ezagutzeko. Zentzu horretan asko dira norabide horretan lan egiten duten pertsona eta erakundeak, eta hauek ere sakonago ezagutu nahi izan ditugu.

Gazte migratzaileekin etorkizuna eraikitzeko bizikidetzaren baten alde egin behar da lan, eta horretarako gaurdanik martxan jartzea ezinbestekoa da.

Datozen orrialdeetan, Mugen Mugetatik #IkusGaitzen izenburupean sortutako proiektuan jasotako informazioaren laburpena egiten da, ateratako testigantzekin tartekatzen delarik. Ateratako erronka eta ondorioak ere bildu nahi izan dira bukatzeko.

<sup>1</sup>Ikuspegi (2020) Atzerritar jatorriko biztanleak EAE-n.

# 1.1 Elkar ikusten hasten

Elkar ikusten hasteko, elkar ezagutzea beharrezkoa da eta elkar entzutea ezinbestekoa. Horregatik gonbidatu ziren lau hizlari gazte elkarteetan egiten zuten lana ikusarazteko:



## Fatimetu Zenan (Sahara, 1999)

*“Saharako errefuxiatu-kanpaleku batean jaio nintzen, eta han bizi izan nintzen 5 urtera arte. Ondoren, familiarekin Euskal Herrira etortzeko aukera izan nuen. Horrela, ikasketak egin eta etorkizun hobea izateko aukera izan nuen. Pertsona batek errefuxiatu-kanpaleku batean jaiotzen denean, ez dauka benetako jatorririk, leku hori ez da zure herrialdea, baina bertan bizitzea normalizat hartzen duzu. Juventud Activa Saharai (JAS) elkartearen kide sortzailea naiz. Elkartea 2020an sortu zen, eta uztailetik ari gara lanean. Saharako gazteak mugiaraztea eta saharar kausaren aldeko parte-hartzea sustatzea da helburua”.*

## Amaia Iguaran (Euskadi, 1965)

*“Amaia naiz, Bilbon jaio nintzen, eta hainbat lankidetzaproiektutan lan egin dut errefuxiatu eta migratzaileekin. Errefuxiatuekin izan nuen lehenengo harremana Kolonbian izan zen. Bizi osoan izan naiz militantea. Badaude espazioak jende gazteak militatzeko edota boluntario moduan laguntzeko. Badaude sindikatuak, mugimendu feministak, ekologistak... Ongi Etorri Errefuxiatuak mugimendua ere hor daukagu. Azken horrekin, migrazioen eta errefuxiatuen arloan lan egiten dut, eta hori da, azken finean, nik ikusarazi nahi dudana”.*

## Ayoub Zouairi (Maroko, 1988)

*“Ayoub dut izena, marokoarra naiz eta ingeniariitza informatikoa ikasi dut. Une honetan lanean ari naiz. Euskadiko marokoar ikasleen elkarteetan hartzen dut parte, eta unibertsitateko ikasleekin lan egiten dugu. Parte hartzen dudana elkartearen helburua denon artean elkartzea da, ikasle moduan, eta egunerokotasunean ditugun zailtasunez hitz egitea. Lankidetzaren edota integrazio arloko tailer eta foroetan ere parte hartzen dugu, baina hori, batzuetan, konplikatu da. Aniztasuna eta kulturartekotasuna funtsezko oinarriak dira gure elkarteetan, eta gazte moduan lan egin behar dugu. Uste dut ezinbestekoa dela elkar errespetatzea eta elkarrekin lan egitea, izan ere, kanpokoa izatea ez da beste munduko ezer”.*

## Bachari (Sahara, 19..)

*“Nire izena Bachari da eta Juventud Activa Saharai (JAS) elkartearen sortzaileetako bat naiz. Elkartearen helburua Saharako herriari laguntza ematea da, betiere, gazteen ikuspegitik. Ni 6 urterekin etorri nintzen hona, “oporrak bakean” izeneko proiektuaren bidez. Proiektu horren baitan, Euskal Herriko familiek saharar haurrak hartzen dituzte harreran. Hemen ikasi nuen gaztelania, etxean hartu ninduten, eta bertan ikasi nuen. JAS elkarteak saharar herritar guztien egoeraren inguruan sensibilizatu nahi ditu gazteak. Arlo horretan militatzen duten talde guztiak eta elkartasun, enpatia, umiltasun keinu guztiak babesten ditugu. Saharako kanpalekuak bisitatzerantz animatzen duten hainbat proiektutan aritzen naiz”.*



## 2. Diskriminazioei, gazte begirada

Gazteen kolektiboa oso anitza da eta partaidetza espazioetan aniztasun hori bermatzea zaila izaten da askotan. Hainbat gazterentzako erritmo eta formatu konkretu eta zurrun batean parte hartzea oztopoa izan daiteke. Hori dela eta ezinbestekoa iruditu zaio EGKri honen gaineko hausnarketa bat egitea.

Askotariko diskriminazioetan murgiltzen da gizartea egunerokoa eta errealitate anitzen baitan: diskriminazio instituzionala, egiturazkoa, pertsonen artekoa... Kasu honetan, pertsonen arteko diskriminazioan zentratuko da lanketa. Kontuan izanik, betiere, diskriminazio guztiek elkar eragiten dutela eta interkonexioak sortzen dituztela.

EGK diskriminazio mota desberdinak identifikatzen saiatzen da bere lan-arloen bitartez, bereziki gazte subjektu baten lekuan jarritz edo maila honetan ematen direnak identifikatuz. Kasu honetan horiei aurre egiteko printzipio, jarrera eta jokabideak identifikatzea izan da erronka gazte migratzaileekin batera, ahots propioz hitz egiteko tartea hartuz eta bizitzako hainbat esparrutan fokua jarritz. Hortaz, EGKtik diskriminazio-praktika hauek

gazte mailan etorkizunera begirako zer nolako erronkak suposatzen duten identifikatu dira. Horretarako, aurreiritzien, jarreraren eta dimentsio anitzen presentzia aintzat hartuta eta bizipen pertsonaletatik abiatuz.

Gainera, Ikuspegiren “Aniztasuna eta diskriminazioa Euskadin: diskriminazioaren inguruko jarrerak eta pertzepzioak” (2020) analisian ageri denez, diskriminazioak bi multzotan banatu ditzakegu: zuzeneko edo sentitzen duguna eta zeharkakoa edo ikusten duguna. Gehien espermentatzen direnak esperientzia pertsonaletatik abiatutakoak dira, batez ere sexuari, adinari, jatorriari edota nazionalitateari dagozkienak.



Diskriminazioei aurre egiteko nahia nabarmendu zuten bertaratutakoek. Horrela laburbilduz, gazteen ustez, gai honi buruz hitz egiten hasten garenean zein den gehien errepikatzen den ideia:

“Pertsona guztien arteko berdintasuna ez bada abiapuntua, gainerakoak ez du balio. Borondatea ere behar da, baina ikuspegia da kontuan izan beharrekoa, nola ikusten ditugun besteak”. Zentzu honetan, aspektu hauek azpimarratu ziren garrantzitsu gisa lanketa egiten hasteko:

- Protagonistekin gai honi buruz gehiago hitz egitea.
- Enpatia ariketa bat egitea nork bere buruarekin.
- Kolektiboak ez orokortzea.
- Espazio seguruak sortzea: Lantzen gabiltzan gaiarekin inor deseroso ez sentitzea.

### **Atzerriko jatorria duten eta ez duten gazteen arteko loturak sortzea.**

Beharrezkoa da, gai honi buruz hitz egitera goazenean, oinarri eraikitzaile eta ulerkorrean egitea, bereziki kontuan hartu beharko da horretarako konfiantzazko espazioak sortzeak hartzen duen garrantzia eta pisua.

Aurretik aipatutako guzti horrekin apurtzeko dinamika eta elkar trukaketarako guneak diseinatu eta sortzea beharrezkoa da. Gainera, nahien eta premien inguruan hitz egiterakoan hartzen den jarrera eta zein posiziotik egiten den ere hartu beharko da kontutan. Espazio horiek sortzeko beharrak, gaia aktiboki eta naturaltasunez lantzeko beharra nabarmendu du.







## 2.1 Aukeren berdintasun eza

Gazteen artean ere, aurretik esan bezala, errealitateak anitzak eta desberdinak dira. Eskubideak teorikoki berdin bermatuta egon behar badira ere, badaude markatuta dauden baldintza batzuk bizi proiektuan edota oro har bizitzako hartu emanetan garrantzi eta balio berezia hartzen dutenak. Faktore horiei buruz hitz egiten dugunean, pertsona gazte baten bizitzan eragin dezaketen egoerei buruz ari gara, eta konkretuki kasu honetan gainera, bizitzea egokitu zaizkien egoerei buruz.

Honakoak dira, besteak beste aipatutako diskriminazioa eragiten duten faktoreak:

- Sexua
- Nazionalitatea
- Adina
- Etnia- edo arraza-jatorria
- Baliabide ekonomiko gutxi izatea
- Gehiegizko pisua/obesitatea izatea
- Aniztasun funtzionala izatea
- Sexu- edo genero-identitatea
- Erljioa edota sinesmena
- Haurdun egotea
- Auzo edota udalerrria

Iturria: Ikuspegi

Gainera, kontuan izan behar da faktore hauetako bat baino gehiago izan ditzakeela gazte batek bere bizitzan, diskriminazioa biderkatuz eta bazterketa handiagoa eraginez. Topaketara gerturatutako gazte batek esan bezala:

***"Atzerritar moduan, esfortzu bikoitza egin behar dugu lupaz aztertuak ez izateko. Eta emakume izanda, are gehiago".***

### ***Errealitate interseksionala.***

Aurretik azaldutako problematikaren gako konkretuak (desberdintasunak eta diskriminazioak), begirada interseksionala aintzat hartuz hausnartu behar dira: pribilegio eta diskriminazio desberdinen begiradatik aztertuz eta arreta jarritz.

Bereizkeria hauek egoera konkretuetan hartzen dute desberdintasun forma orokorrean (Ruiz, 2020). Gazte askok aukeren berdintasun eza bizitzako aspektu eta esparru hauetan jasaten dute:

- Etxebizitza bat alokatzeko orduan.
- Lanpostu baterako hautatuak izateko orduan/lan merkatuako sarreran.
- Zerbitzu publikoak jasotzeko eta bermatuta izateko orduan: hezkuntza, osasuna...
- Zenbait lege aplikatzeko orduan.

Ruizek (2020) dioen bezala, eremuen arabera gainera, diskriminazio horiek areagotu daitezke. Esaterako, lan eremuan edota lanpostu bat eskuratzeari dagokion eremuan, aukeren berdintasunean arrakala nabarmena egoten da gazte askoren edota ezaugarri desberdindun gazteen artean. Kolektibo deitzen diegun gazte talde batzuentzat, subjektu gisa ere (gazteak honen baitan bereziki).





### 3. Non ikusten gara? Non aurkitu gaitzke? Espazio desberdinetako oztopoak

Gazteak non ikusten garen eta non ikus gaitzkeen gehiago zehazteko ariketa egin zen topaketan dinamika parte-hartzaile baten bitartez, non haien bizipen eta esperientziak partekatu zituzten gazte protagonistek. Honako arlo hauetan sailkatu dira ateratako idiak: etxebizitza, enplegua, hezkuntza eta partaidetza espazioak oro har. Guztiek zuzeneko lotura dute gazteok errealitatean partekatzen ditugun espazio edo gaiekin. Arazoaren eta eronken identifikaziora jo zen arloz arlo:

#### Partaidetza:

Aukeren berdintasun eza ematen den beste espazio bat da partaidetza. *“Parte-hartzea ez da berdina denontzat. Ez da bakarrik ez garelako espazio edo egoera berberetan mugitzen; parte hartzeko aukerak eta moduak ere ez dira berdinak”*. Horrela laburbildu du topaketan gazte batek partaidetzarako sarbide irizpidea berdin bermatzen ez dela. Honen harira, gaia gazteekin lantzerako orduan beharrezko faktore bat nabarmentzen da: esku hartze seguru bat egitearen premia.

Beharrezkoa da, oraindik ere, espazioak sortzea non denborarekin jatorri desberdinetako pertsonak elkartzea lortzen den, batez ere gazte mailan sufritzen diren egoerei buruz hitz egiteko. Lehen pertsona arrazakeria edo diskriminazio egoera bizi izan dutenen arteko espazioak faltan botatzen dituztela kontatu zuten topaketara bertaratutakoek. Horretarako, nahiz eta jatorri eta migrazio prozesu desberdinetatik eratorritako jendea batu, garrantzitsua izango da informazioaren bidez ideia desberdinak zein kulturartekotasunari lekua uztea, hala aberatsagoak izango dira espazio hauek. Horrela, bazterketa egoerek gazte desberdinak nola zeharkatzen dituzten partekatzea ahalbidetuko da.

Parte hartzerako orduan existitzen diren pribilegio eta mugen inguruan ere hitz egin zen eta zentzu horretan, planteamenduak ezer baino lehen begirada elkar ezagutzan jarri behar duela azpimarratu zen. Hori

barik nekez izango delako partaidetza integral eta erreal bat. *“Eredu bat hartu eta ezarri edo inposatzea ez da baliagarria, landu egin behar da, eta agintariak hori sustatu behar dute”*. Azken honekin gainera, boterean dauden eta instituzio desberdinetan dauden agintarien asmo eta egitekoak bide horretatik eta forma hori hartuz joan behar direla azpimarratu da.

Honekin, partaidetzaren gainean dagoen estigmatizazio eta rolen inguruko afera ere azaleratu da, izan ere parte hartzaile askok haien ardura adierazi zuten espazio desberdinetan eta jendartearen sortzen diren taldeen gaineko aurreiritzietan eta adierazi dute horrek ez duela partaidetza ahalbidetzen: *“Meritua ez dauka beti nazionalitate argi bat. Batzuetan, ahaldundu beharra daukagu, eta atzeritarrek egin dezakeguna argi erakutsi behar dugu. Pertsona batek ezin dio beste bati lagundu berak laguntza behar baldin badu, hau da, nik ezin dut boluntario-lanik egin kalean bizi banaiz, edo jatekorik ez badaukat. Horrela izanik, denok ez ditugu parte hartzeko aukera berdinak”*.

Gainera, fokua arrazakerian ere jartzen da parte hartzerako bidean edo aukeretan eta hau ahalbidetzen ez duten faktoreen artean bereziki. *“Ezezagunarekiko beldurrak eragotzi egiten du berdintasuna. Eta, kasu batzuetan, arrazakeria da arrazoia”*.

Parte hartzeko oztopo gisa irudikatzen da beraz arrazakeria, eta honi aurre egiteko hezkuntzaren eta familien lanaren garrantzia aldarrikatu zuten. Aniztasunaren





funtzioa txikitatik sozializatzea bereziki garrantzitsu izango da zentzu horretan. Gainera, kanpo faktoreek (komunikabideak, aisialdiak, etxeak...) hartzen duten garrantzia ere ezin dugu alde batera utzi. Honen adibide dira bertaratutako gazte batzuk adierazitako ideiak: *“Komunikabideek zabaltzen dituzten mezuak oso sinetsgarriak dira, batzuetan nik neuk ere sinesten ditut, eta nire buruarenganako zalantzak izaten ditut”*. *“Komunikabideek islatzen dutena ez da errealitatea. Ere mu partekatuei esker ezagutu dezakegu seniderik gabe heldutako gazte marokoarren errealitatea, gazte latinoen errealitatea... eta hori ez duzu inoiz komunikabideen bidez lortuko”*.

Honi gehitzen zaio gainera, arrazakeriari aurre egiteak dakarren neke eta sufrimendua pertsona gazte batentzat, etsipenarekin eta ezinegonarekin ere sarritan lotzen delarik bertaratutako gazte protagonistek azaldu zuten: *“Herritar onaren rol hori bete behar duzu, lankide onarena... denetan gehiago erakutsi behar duzu, kanpokoa izateagatik. Eta akigarria da benetan... nahi dudana bakarria da ni naizen bezala onartzea, bestela paso egingo dut (barreak)”*.

Aniztasuna altxor bezala ikusten da gazteen artean, baina ez beti. Bertaratutako gazte ugarik aipatutako ideia bat izan zen hain zuzen ere, kanpora begira kultura eta jatorri aniztasuna exotiko eta positibotzat ematen dela. Bidaiatzean horrelako gizarreak ikustea erakargarri egiten zitzairen bertaratutako gazte askori. Honekin, autokritika egiten zuten onartuz aniztasun hori Euskadin dagoenean negatibotzat hartzen dela, mesfidantza eta susmoa gailentzen direla errealitate hori ikustean. Adibidez, ez da berdin hautematen kultur eta jatorri aniztasuna New Yorkeko hirian edota Bilboko San Franciskoko auzoan. Eta desberdinkeria hori gazte askok arduratik bizi dutela adierazi zuten topaketan, kontuan izanik gainera gero eta pertsona gehiago dagoela egoera horretan eta gero eta gizarre anitzagoa garel.

Bestalde, oinarrizko beharrak asetuta izanda ere, badira beste harrisi ikusezin batzuk parte hartzeko pausua ematea zailtzen dutenak. Legeak eta batez ere hauen interpretazioak izan ziren gazte gehienek azpimarratutako traba nagusiak, Atzerritartasun Legea nabarmenduz

bereziki. Mahaigaineratu zen lege honek lana edota etxebizitza bezain oinarrizko gaiak zailtzen dituelarik partaidetza bigarren planoan uzten duela gazte askorentzat. Legediaren arabera egoera irregularrean dauden gazteek ardura eta ezinegona adierazi zuten zentzu honetan. Oro har, ardura eta aldaketa nahia nabaritzen da gai honen baitan pertsona gazteen artean eta honetatik ondorioztatu daitekeena da zenbait aldaketa emateko beharra eta gogoia sentitzen dutela. Beraien bizitza proiektu eta bizi kalitatea ere duintze aldera, beharrezkoak eta oinarrizkoak diren kontuetan batik bat.

### **Etxebizitza:**

Parte hartzaile gehien artean gailentzen da etxebizitzaren gaia azpimarratzea garrantzitsua dela. Izan ere, nazionalitate konkretu batzuei buruz hitz egin ezker, pertsona migrantea izateak eragotzi egin dezake etxebizitzarako sarbide hori. Honek zuzenean eragiten die topaketara gerturatutako gazteei. Etxebizitza bat alokatzeko orduan, diskriminazioak agerikoak dira, bertaratutako gazteek argi ikusarazi duten bezala: *“Gazte marokoarrek etxebizitza aurkitzeko dituzten arazoak ikusarazi nahi ditugu; ez da batere erraza, batez ere ikustera zozenean eta nongoa zaren galdetzen dituztenean”*.

*“Ez gara ari futbol talde batean jokatu ahal izateaz, oinarrizko beharrez ari gara, bizitzeko lekuaz. Nik ordaindu dezaket, abala eman dezaket, baina ez, zure izen-abizenak eta nongoa zaren ikusten dutenean, ezetz esaten dizute. Batzuetan, higiezinen agentziara joan eta zuzenean bertakoak esaten dizu etxearen jabeak ez duela atzerritarrik nahi (hori ez da legezkoa), bertako jendea baino ez duela onartzen. Baina bertakoa izatea zer den ere ez dago hain argi; kasu batzuetan, hemen jaiotakoa izan eta NAN agiria izan arren, zure abizena ikusita, ezetz esaten dizute”*.

Helarazitako kontuen artean, irekiak izatearen ideia agertu zen, eta zentzu horretan, hitzetatik praktikara jotzearen beharra. Bereziki nabarmendu izan da etxebizitzako arloan ideia hau. Izan ere, ikuspegi solidario edo eskuzabaltasuneko izaera batetik koherentek ez garelako ikusi zen: garelako esaten dugunetik, errealitatean egiten dugunera.





Topaketan mahaigaineratutako informazio hau berresten du 2018an Gipuzkoako BERDIN Sareak higiezin agentzietan diskriminazio egoerari buruz egindako testing-ak jasotzen dituen ikerketak. Ondorioztatu denez, etorkinek tratu diskriminatzailea jaso dute kasu askotan, alokairuan eskaintzen zaien etxebizitzaren kopurua nabarmen txikiagoa izan baita eta baldintza gogorragoetan eskatzen zaizkielako etxeak. Batez beste, bertako jatorria duten herritarrei eskaintzen zaizkien etxebizitzaren laurdena soilik ematen zaie aukeran etorkinei.

Halaber, SOS Arrazakeriako Maitane Arnosok nabarmentzen duenez, "diskriminazioa ez da soilik gertatzen eskaintza bera murriztagoa izanagatik, testing-arekin agerian geratu baita baldintza askoz ere zorrotzagoei egin behar dietela aurre etorkinek". Epe luzerako lan kontratua, gutxieneko diru-sarreraren

ziurtagiriak eta fidantza, abal eta ez-ordainketa aseguru altuagoak eskatzen direla azaldu zuen txostena aurkeztean SOS Arrazakeriako ordezkariak. Gainera, "zenbait kasutan gertatu da laguntza soziala jasotzen duten etorkinei ukatu egin zaiela alokatzeko aukera". Zentzu horretan, topaketan bistaratu ziren erronek mahai gainean jartzea beharrezkoa da aukeren berdintasunaren ikuspegitik eta batez ere gazte sektoreari dagokionez.

Honen harira, toki desberdinetako gazte asko elkartzen eta mobilizatzen hasi direla plazaratu zen topaketan. Kolektibo hauen helburua, besteak beste, etxebizitzarako sarbidea edota egoera erregular bat izatera bidean errolatzearen aldarria egitea da. Hauetako adibide da topaketan gazteek ezagutzera emandako "Regularización Ya!" mugimendua, non gazte mailan ere parte hartze aktiboa dagoen.

Interseksionalitateak aurpegi asko dauzka, topaketa honetara bertaraturako gazteen artean garrantzi gehien izan zituzten diskriminazioak batez ere partaidetzarekin eta etxebizitzarekin izan zuten lotura. Hala ere, azpimarraturako ideietako bat izan da gazte bakoitzaren bizitza eta motxila oso desberdinak direla, eta parte hartzea zailtzen duten baldintzak guztiz desberdinak izan daitezke beste egoera bat bizi izan duen gazte batentzat. Tamalez, egoera hau bizi duen gazte batek are traba gehiago izango ditu bizitza proiektu duin bat izan eta hori garatzeko.





## Hezkuntza:

Hezkuntzak gai honetan hartzen duen garrantzia eta pisua ere analizatu zen gazte askoren eskutik, izan ere, txikitatik familia eremuaz gain hezkuntza da eragin eta esku hartze zein sozializazio espazio nagusia. Hau jarraikorra eta gainerako gizarte testuinguru eta agenteekin bat joatea beharrezkoa da, aurretik aipatutako familia faktorearekin esaterako sintonian joan behar delarik betiere.

*“Behetik hasi behar dugu, haurren heziketatik, eta eskola da gai hau lantzeko espaziorik egokiena”.*

*“Ikasgela berean egon arren, arrazakeriak ez digu elkartzen utziko. Nik entzun izan ditut guraso batzuk esaten ez dituztela seme-alabak*

*ikastetxe jakin batera eraman nahi, etorkin asko daudelako. Edo euskarazko ereduari matrikulatuko dituztela, migratzaileen seme-alabekin ez elkartzeko. Garrantzitsuena da etxean aurreiritzirik ez jasotzea edota komentario arrazistarik ez entzutea”.*

Honez gain, hezkuntzan ematen den segregazioaren gaia hainbatetan aipatu izan da eta ardura sortzen die bertaratutako gazteei. Honekin bukatzeko beharra transmititu zuten eta gaur egun ematen diren honako gertaerak salatu behar direla haien ustez:

- Pertsona migranteen seme alabak eskola konkretu batzuetara bideratzen dira gehienbat, honek gizarte bazterketarako uzten duen arriskuarekin.

- Kasu askotan, ikastetxez aldatzen dira pertsona hauek sarritan eta horrek ez du integrazioa ahalbidetzen uzten. Gainera, honek zentroarekiko errotze bat ez ematea sor dezake eta getizazioaren ideian sakontzen du.

Honen aurrean proposatu zena honakoa izan zen: Alde batetik, arrazakeriaren gaiaren lanketa presente egotea: maila honetan ematen diren arrisku eta beharrak identifikatzea, hau da, ikasgeletan ere diskriminazio egoera desberdinak identifikatzeko lan bat egitea. Bestalde, zentroen eta familien etengabeko komunikazioa garatzea gai honen inguruan sor daitezkeen egoerekin.

## Enplegua:

Gazteen artean elkar topatzeko beste eremu bat bezala identifikatu izan da enpleguarena, baina baita kasu askotan horretarako zailtasun gisa ere. Ateratako oztopoen artean, hauek aurkitzen ditugu bereziki: kontratatzerako orduan aurreiritziak agerikoak direla eta hizkuntzaren garrantzia. Jarraian jasotzen dira topaketan bertan hori horrela transmititu zituzten bi ideiak: *“Lan arloan ez dugu elkar topatzen. Enpresariak hemengo jendea kontratatu nahi dute. Diskriminazio soziala gertatzen da; lehenetsunak daude”.*

*“Asko lagundu zidan hizkuntza jakiteak. Horri esker, leku gehiagotara heldu naiz, hala nola jantoki sozialak; eta gainera lana errazago bilatu ahal izan dut”.*

Zentzu horretan, lanerako sarbide irizpideei buruz jardun zen topaketan. Honek berebiziko garrantzia hartzen du pertsona gazte batek bere bizi proiektua garatzerako orduan, batez ere oztopo hauek medio proiektu hau garatzeko ezintasunean. Bizi proiektua garatzeko bideak errazte aldera aurrerapausoak emateko beharraren ideia hainbatetan atera zen.

## 4. Bizikidetzarako zenbait gako



Gizarte-eraldaketa eman dadin beharrezkoa da, aukerak identifikatzu eta gizarte-arazoak gainditzeko oztupoak edo eginbeharrak zeintzuk diren aztertuz lan egitea. Topaketako gazteek ere azaldu nahi izan zuten arazo honen zergatia: *“Bizi garen gizartearen antolamendua dela eta, gure koadrilarekin edo inguruko lagunekin soilik elkartzen gara. Zirkulu itxia da. Horrela, ez gara nahasten, ez da beste pertsonetik harremana errazten”*.

Gonbidatutako lau pertsonen testigantzak entzun ondoren, praktikara pasatu zen topaketa bigarren atal bati bide emanez. Parte hartzeko dinamika bat antolatu zen bertaratu ziren pertsona guztien artean, 4 hizlariak barne. Bertan, hainbat izan ziren ere gerturatutako eragile sozialetako kideak, besteak beste Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia-ko kidegoa, ONGDen Koordinadorako kidegoa, Emigrados Sin Fronteraseko kideak eta baita norbanako gisa bertaratutakoak ere, ikasleak izanik etorri ziren gehienak.

Bertaratutako guztiak bi taldetan banatu ziren, gazteak ikusten diren, kointziditzen duten eta elkarren artean konektatzen duten espazioak aztertu eta beste alde bate-

rik, hau ematen ez den espazioak identifikatzeko. Labur esanda, gaur egun ere oraindik existitzen dira espazioak zeinetan batera bagauden baina ez dugun elkarbizitarik. Honen adierazgarri da topaketan mahaigaineratutako ondorengo ideia:

*“Ez gara espazio askotan elkartzen. Jende askok enpatizatzen du, baina ez dituzte beste kausak babesten. Ez dienez zuzenean eragiten... Baina, azkenean, denoi eragiten digu, denok gara gizartearen parte, eta lehenago edo beranduago eragingo digu”*.

Gainera, gai honen inguruan antolatzen diren ekintzetan, topaketetan zein trukerako espazioetan parte hartze maila ez da oso altua izaten kuantitatiboki, gaiak kualitatiboki pisua eta garrantzia izan arren. Arrazakeriaren aurkako mugimenduan gazteen presentzia areagotzea bereziki beharrezkoa dela aldarrikatu zen: *“Jendea ez da espazio horietara gerturatzen. Oso erraza da sare sozialetan mezuak partekatzea, baina ezagutu, ikasi edo entzuteko antolatutako espazio fisikoetan parte-hartzea oso baxua da”*.

## 4.1 Harremanak eta testuinguruak erraztu edo zaildu ditzatekeen faktoreak



Topaketara gerturatutako hizlari zein gazte parte hartzaileek ondorengo faktore hauek identifikatu zituzten bereziki, eta hauetan sakondu nahi izan zuten. Beste faktore desberdin batzuek daudela jakinik eta tokian tokiko errealitatearen arabera batzuek beste batzuek baino eragin gehiago izan dezaketela kontuan hartuz.

- Hizkuntza
- Hezkuntza-eremua
- Kultura
- Aisialdia
- Adina

Ikuspegiren La nueva sociedad vasca diversa (2017) analisi txostenaren arabera, horiek izan daitezke gazteen gizarte dinamikan

eragina eta traszendentzia har dezaketen gaiak edo esparruak. Faktore hauen arabera sortzen dira batez ere eta begi-bistan balioetsi daitezkeen gizarte lotura estuak. Gazteen kasuan ere horrela dela esan genezake, izan ere, topaketan azaldutako testigantzek agerian uzten dute harreman hauek ematerako orduan lehenasunezko espazioak daudela. Beraz, elkarrekin nahasteko ohiko guneak eguneroko behar primario edo oinarrizkoetatik urrun gelditzen direla askotan eta erdigunetik at kokatzen dira sarritan premia hauek.

Honelako ekimenek beste espazio batzuetan ahotsa eduki ez duten edo erakutsi ezin izan duten pertsonak ikusarazten ditu. Eta ahotsa ez ezik, beste belarri batzuk ere izatea ahalbidetzen du, hau da, pertsona desberdinen,

anekdota desberdinen eta, batez ere, ezagutzen ez dituzun iritziak entzuteko aukera ematen du. Garrantzitsua da kontatzeko lekua izatea, baina baita norberaren ahotsa entzuna izaten ari dela sentitzea ere.

Hitz politetatik haratago joatearen eskaera azpimarratu dute bertaratutakoek, praktikan emaitzak ikustearen nahia: *“Batzuetan gazte migratzaileek dituzten arazoak identifikatzen ditugu, baina errealitatean ez dugu ikusten zer egin den edo zer ez”*.

## 5. Erronkak eta ondorioak

**Parte hartzaileetako batek esan bezala, ikusten ez dena ez da existitzen, eta bezaz eremu horiek (izan esfera publiko zein norbanakoaren espazio pribatukoak) ez badira partekatuak, ez da espazio horiek anitzago izan daitezen ahalbidetzen.**

Kulturartekotasunean oinarritzen den gizarte baten alde egin nahi bada nahitaez egin beharko zaie aurre jatorri desberdineko gazteek partekatzen dituzten espaziotan azaleratzen diren eskaera eta erronkei. Elkarlanean egindako lana izan behar da, gazte guztiek lanketa hori egin eta parte hartzeko aukera erreal berdinak izan behar dituzte. Lanketa horrek ahalbidetu behar du denon artean pentsatu eta eraldatzea gizartea, benetan ikus gaitezen, elkar ezagutu dezagun eta batera eman ditzagun aurrerapausoak gizarte bidezkoago, parte-hartzaileago eta berdintasunean benetan oinarritutakoa eraikitzeko.

Elkarbanaturiko ideiak daudela ikusi da parte hartzera etorri ziren gazteen eta topaketaren hasieran hitza hartu zuten gonbidatuen artean. Landutakoa aztertu ostean jarraian batutako ondorio nagusiak atera dira:

- Gazte guztiek ez dituzte parte hartzeko aukera berdinak. Norbanako batek ez baditu bizitza duin bat izateko baldintza oinarritzkoenak ziurtatuak eta asetuta ezin du gizartean parte hartu. Parte hartzeko aukera eta moduak ez dira berdinak gazte guztientzat.

- Gazte migratzaileen diskriminazioak eta aukera desberdintasuna hainbat eremutan ematen dira: etxebizitza, enplegua, hezkuntza, gizarte balioak...

- Hezkuntzaren papera azpimarratu da, topalekuetako bat izanik, garrantzi berezia baitu benetan ikus gaitezen eta elkarrekin bizi gaitezen ahalbidetu dezakeelako. Zentzu

horretan, segregazioaren gaia sakonean lantzeko beharra nabarmendu da.

- Profil anitzeko gazteentzako elkargune edo topalekuen beharra aldarrikatu da. Etorkizuna denon artean eraikitzeko kontuan izan beharreko eskaera da, denontzako gizartea denon artean eraikitzeko. Zentzu honetan, topaketan egondako aniztasuna zein ahots guztiak entzunak izatearen bermeak partaidetza horizontala ahalbidetu du, guztiontzako espazio seguru bat sortuz.

- Gizartean zabaldua dauden irain eta estereotipoak onartzen hasi dira Euskadin bizi diren gazteak. Arrazakeria onartu eta normalizatzen hasi dira, hau oso larria delarik Giza Eskubideen aurkako eraso zuzena baita.

Beraz, topaketatik ateratako ondorioek EGK-k azken urteetan adierazitako eskaerak berresten dituzte. Alde batetik gazteei ahotsa emateko espazio parte-hartzaile gehiago sortu behar direla, eta bestetik, aniztasunean bizikidetzat ahalbidetzen duten balioak landu eta sustatu behar dira (hezkuntzatik zein bestelako gizarte espazioetatik). Azkenik, administrazio eta instituzioentzako atentzio dei bat luzatzea beharrezkoa da, hitzeman dezaten gazteei elkar ikus daitezen aukera emango dietela, denon artean benetan eraiki dezagun etorkizuna elkarlanean. Jatorri desberdinak ez dezala gehiago eragotzi elkar topatzea, ezta partaidetza oztopatu ere.

## 6. Itxiera

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko hezkuntza zein bake eta bizikidetzan lan-arloek denbora daramate gazte guztien eskubideen alde lan egiten. Garatutako proiektu zein koordinatutako lantaldeetan egiaztatu da Euskadiko gazteriaren errealitatea anitza dela. Askotan antzeko ardurak dituzte gazteek, baina oso desberdinak aldi berean, eta honek galarazten du gazte guztiek aukera berdina dituzten kulturarteko etorkizun plural baten eraikuntzan denok erritmo berdina izatea.

Aisialdi eta hezkuntza ez formaleko espazioek ahalbidetu dezatela baldintza berdinetan parte hartzea. #IkusGaitzean proiektua honen isla da. Gazteen partaidetza nolakoa den, non parte hartzen duten eta espazio horietan zer hobetuko luketen lantzeko beharretik sortutako proiektua da hau.

Txosten honek proiektuan parte hartu zuten gazteen ekarpen nagusiak jaso ditu, baita bertan mahaigaineratutako erronka eta errealitateak ere. Etorkizunera begira Ikus Gaitzean proiektuak zabaldu dituen lan-ildo berriak jorratzen jarraituko dugu aurretik esandakoen zentzu horretan.

Proiektu honekin EGKtik aldarrikatzea lortu nahi duguna, esaldi honek laburbiltzen duela esan daiteke:

***“Errealitatea ez ezagutzeak beldurra ematen du, eta tamalez hori etxe askotan transmititzen da”.***



# 7. Aipamen bibliografikoa

-BERDIN Sarea (2018).

-Ikuspegi (2017). *Euskal gizarte berri eta anitza*. [https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigaciones/2G/P3\\_CAP4\\_nueva\\_sociedadEUS.pdf](https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigaciones/2G/P3_CAP4_nueva_sociedadEUS.pdf)

-Ikuspegi (2020). *Atzerritar jatorriko biztanleak EAEn 2020*. <https://www.ikuspegi.eus/documentos/panoramicas/pan76eusOK.pdf>

-Ikuspegi (2020). *Aniztasuna eta diskriminazioa Euskadin: diskriminazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak*.

-Ikuspegi eta Biltzen (2020). *Immigrazioa eta Integrazioa Euskadin, Aniztasuna eta Diskriminazio Anizkoitza (X. jardunaldiak)*.

-Ruiz Ciarreta, Irene (2020). *Aniztasuna eta diskriminazioa Euskadin: diskriminazioaren inguruko jarrerak eta pertzepzioak*.